

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Adarbakar urdinak Lockerren Ilargian



1835eko abuztuan, *The New York Sun* egunkarian Richard Adams Locke Ilargiari buruzko hainbat artikulua argitaratu zituen. Haren arabera, satelitean izaki bizidunak zeuden: gizaki hegodunak, adarbakar urdinak...

NEW YORK, 1835EKO ABUZTUAREN 25A. *The New York Sun* egunkariak titular ikusgarria argitaratu zuen azalean: "Sir John Herschel-ek aurkikuntza astronomiko bikainak egin ditu". Richard Adams Locke (1800-1871) egunkariko editoreak sinatutako artikuluen arabera, teleskopio berri bati esker astronomo britainiarrak Ilargiaren azala xehetasun osoz ikusteko aukera izan zuen eta bertan izaki bizidunak zeudela deskubritu zuen.

Abuztuaren 26ko eta 27ko artikuluetan Locke gure satelite naturalean aurkitutako bederatzi animalia espezie berriak deskribatu zituen, besteak beste, adarbakar urdinak eta oniszidea eta bola-zomorro handi modukoak, espezie lurtarrekoak ez bezala itzulika zebiltzanak.

Baina aurkikuntza gailena abuztuaren 28ko alerako utzi zuen: gizaki espezie bitxia ere agertu zen Herschelen teleskopioan. Locke *vespertilio-homo* edo *man-bat* izendatu zuen artikuluan, gizaki-saguzarra, alegia. Saguzar hegoak eta hanka txikiak zituzten gizaki horiek zafiro urdinez egindako tenplu baten inguruan biltzen omen ziren.

Hurrengo egunean ez zen Ilargiko bizidunei buruzko artikulurik argitaratu. Horren orde, teleskopioa matxuratu zela zioen oharra ateratu zuten.

Herschelek kontu horiek guztiak gezurtatu arte, irakurle gehienek berri harrigarriak sinetsi zituzten. Eta batzuek egiazat jo zituzten geroago ere. Esaterako Francisco de Carrionek artikulua gaztelerara itzuli eta Espainian argitaratu zuen 1936an.

Herschel bere izena erabili zutelako kexatu zen arren, *The New York Sun* egunkariak ez zuen sekula onartu hura gezurra edo txantxa zela. Locke ere ez zuen sekula azalpenik eman. Hiriko gainerako egunkarietako ordezkariak gaizki pentsatu zuten: Lockeren asmoa egunkari gehiago saltzea zela. Egun, ordea, beste iritzi bat da nagusi: Locke lehenago ere New Yorkeko hiritarren fede itsua eta pentsamolde hertsia kritikatu izan zituen, eta horixe litzateke artikulua sortaren helburua.

Hala izan bazen, irakurleek ez zioten Lockeren ironiari antzeman, beharbada editorea zuzen zegoelako: herritarrak itxiak ziren.

Arrastoak

Burdelak, Kapera Sixtinoaren inspirazio iturri

MICHELANGELO BUONARROTTIK *stuf* izeneko masaje eta prostituzio etxeetara egiten zituen bisitak funtseko inspirazio iturria izan ziren Kapera Sixtinoko freskoak egiteko, Pisako Unibertsitateko Elena Lazzarini ikerlariaren arabera.

Margolan ezagunean ageri diren gorputz gihartsuen ereduak stufe horietako bezero nahiz prostitutuak omen ziren. Eta, beti ere Lazzariniren esanetan, freskoetako pertsonaia batzuk jarrera homosexual garbia dute.

Ikerlariak adierazi du inspiratzeko metodo hori ohikoa zela garai hartan, eta beste zenbait artistak ere, hala nola Da Vinci eta Bronzinok, lanaren aitzakian putetxeetara joateko ohitura omen zutela.



MICHELANGELO BUONARROTTI